

BESTELAKO XEDAPENAK

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

2057

EBAZPENA, 2020ko maiatzaren 12koa, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren zuzendariarena, zeinaren bidez aldatzen baita, 2019ko maiatzaren 15eko ebazpena, zeinaren bidez kontsumitzaileen elkarteei dirulaguntzak ematen zaizkie, 2019ko ekitaldian funtzionamenduari, laguntza juridikoari eta berrikuntza teknologiko proiektuak gauzatzeari dagozkien gastuak ordaindu ditzaten.

Lehenengoa.— Kontsumobideko zuzendariaren 2018ko abenduaren 4ko Ebazpenaren bidez, kontsumitzaileen elkarteei dirulaguntzak emateko deialdia argitaratu zen, 2019ko ekitaldian funtzionamenduko, laguntza juridikoko eta berrikuntza teknologikoko proiektuak gauzatzeko gastuak ordaintzeko.

Bigarrena.— 2018ko abenduaren 4ko Ebazpenean ezarritako aldian, Kontsumobiden jaso ziren erakunde hauek —dagozkien zenbatekoekin— eginiko laguntza-eskaerak, aipatutako ebazpenari helduta.

	EKE	UCE	ACUV/EKA
1. lerroa: Funtzionamendua	111.025	151.104,86	152.591,47
2. lerroa: Laguntza Juridikoa	40.000	54,150,00	119.988,82
3. lerroa: Berrikuntza Teknologikoko Proiektuak	15.000	14.520,00	29.195,71

Hirugarrena.— Kontsumobideko zuzendariaren 2019ko maiatzaren 15eko Ebazpenaren bidez, dirulaguntza hauek eman ziren:

Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoa – EKE

1. lerroa: Funtzionamendua	70.352,17
2. lerroa: Laguntza Juridikoa	24.096,39
3. lerroa: Berrikuntza Teknologikoko Proiektuak	10.000,00
Guztira	104.448,56

Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasuna (EHKB)

1. lerroa: Funtzionamendua	84.823,91
2. lerroa: Laguntza Juridikoa	40.449,40
3. lerroa: Berrikuntza Teknologikoko Proiektuak	5.000,00
Guztira	130.273,31

Euskal Kontsumitzaileen Alkartea – ACUV/EKA

1. lerroa: Funtzionamendua	84.823,91
2. lerroa: Laguntza Juridikoa	55.000,00
3. lerroa: Berrikuntza Teknologikoko Proiektuak	15.000,00
Guztira	154.823,91

Laugarrena.– 2018ko abenduaren 4ko Ebazpenaren 16. artikularen arabera, dirulaguntzaren % 74,71 aldeko ebazpena eman zenean ordaindu zen, eta gainerako % 25,29 gastua justifikatzean ordaintzeko geratu zen.

Bosgarrena.– Erakunde onuradunek eman zaien dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu dute, eta desbideratze hauek gertatu dira justifikazioaren eta dirulaguntza kalkulatzeko onartutako aurrekontuaren artean.

Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoa – EKE

	Onartutako aurrekontua	Justifikazioa	Desbideratzea
1. lerroa: Funtzionamendua	111.025	85.696,30	% 22,81
2. lerroa: Laguntza juridikoa	40.000	18.529,42	% 53,68
3. lerroa: Berrikuntza teknologikoko proiektuak	10.000	0	% 100

Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasuna (EHKB):

	Onartutako aurrekontua	Justifikazioa	Desbideratzea
3. lerroa: Berrikuntza teknologikoko proiektuak	5.000	0	% 100

Seigarrena.– 2018ko abenduaren 4ko Ebazpenaren 17. artikularen 3. puntuak ezartzen duenez, gastuen justifikazioan % 15etik gorako eta % 25eko edo hortik beherako desbideratzea gertatzen bada, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da. Hala, benetan gastatutako zenbatekoari dirulaguntza kalkulatzeko aurrekontuan ezarritako zenbatekoari aplikatu zitzaion ehuneko bera aplikatuko zaio.

Halaber, 4. puntuan ezartzen denez, gastuen justifikazioan % 25etik gorako desbideratzea gertatzen bada, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu egingo da, dirulaguntzaren bidez lortu nahi ziren helburu guztiak bete direla egiaztatzen denean izan ezik. Kasu horretan, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, eta benetan gastatutako zenbatekoari dirulaguntza kalkulatzeko aurrekontuari aplikatutako ehuneko bera aplikatuko zaio.

Zazpigarrena.– Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoak (EKE), lehenengo eta bigarren lerroetan, dirulaguntza emateko helburu guztiak bete ditu.

Aipatutako lege-xedapenak ikusita eta oro har zein bereziki aplikagarri diren gainerakoak oinarri hartuta, honen bidez, Kontsumobideko zuzendariak honako hau

XEDATZEN DU:

1.– Aldatzea Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoari (EKE), Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasunari (EHKB) 2018ko maiatzaren 15eko Ebazpenaren bidez eman zitzaizkien zenbatekoak, kontzeptu eta kopuru hauetan:

Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoa – EKE

	Dirulaguntza
1. lerroa: Funtzionamendua	54.302,37
2. lerroa: Laguntza juridikoa	11.162,30
3. lerroa: Berrikuntza teknologikoko proiektuak	0

Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasuna (EHKB)

	Dirulaguntza
3. lerroa: Berrikuntza teknologikoko proiektuak	0

2.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen, eta beronen aurka gora jotzeko errekur-tsoa jar dakioke Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuari, hilabeteko epearen barruan, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

3.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 12a.

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren zuzendaria,
MARÍA OLGA SANTAMARIA NAVARIDAS.